


KANALAK

Gure zerbitzua eta produktuak bezeroengana helarazteko webgune bat sortuko dugu. Horretaz gain, sare sozialek gaur egun duten garrantziaz baliatuko gara. Esaterako, instagram eta facebook-eko kontu bana sortuz. Beraz, internet izango da bezeroekiko komunikabide nagusia. Bai webgunean eta bai sare sozialetan bezeroek beren kezka eta iradokizunak idatzi ahal izango dituzte eta gainera korreo elektronikoko bat izango dugu bezeroen esku.



Hala ere, gure zerbitzua fisikoa denez, bezeroek duten iradokizun edota zalantza lokallean ere galdetzeko aukera izango dute eta honela bezeroekin zuzeneko harremana sustatzeko aukera izango genuke.



Esan bezala, gurea lokal fisikoa da, beraz gure zerbitzuez gozatu nahi duen orok bertara gerturatu beharko du.

Bestalde, bezeroek zerbitzua kontsumitu ondoren, bezeroekin harremanetan jarraituko dugu. Izan ere, oso garrantzitsua iruditzen zaigu harreman hau sustatzen jarraitzea, bezeroak gure zerbitzua alokatzen jarrai dezaten. Aitzitik, gure zerbitzuak hobetzen

jarraitu ahal izango dugu beren iritziekin. Hau, webgunearen eta sare sozialen bidez egingo dugu.

